

AMOREBIETA-ETXANOKO UDALEKO HEZKUNTZA SAILAREN DIRULAGUNTZAK LEHIAKETAKO ARAUBIDEAREN ARABERA EMATEKO 2009KO DEIALDIA.

Martxoaren 16ko 79-09 zenbakidun presidente-erabakiaren bidez, Amorebieta-Etxanoko Ametx Erakunde Autonomoak onartu egin zituen hezkuntza arloko dirulaguntzen emakida arautzen duten Oinarriak eta 2009ko deialdia.

LEHENENGOA: HELBURUA

Oinarri hauetan arautzen diren dirulaguntzek Amorebieta-Etxanoko udalerrian burututako gizarte-hezkuntzako jarduera edo jarduera zibikoak diruz laguntzea dute helburu.

BIGARRENA: ERAKUNDE HARTZAILEAK

Onuradunak izango dira aurreko atalean azaldutako jarduera sustatzen edo egiten duten pertsona fisiko edo juridikoak.

Honakoak izan beharko dira:

- Gizarte-hezkuntzako jarduerak edo jarduera zibikoak burutzen dituzten ikastetxe edo institutuak
- Irabazteko asmorik gabeko Erakunde edo Elkarteak, legez eratuak, egoitza Amorebieta-Etxanon badute eta jarduerak batik bat Udalerrian egiten badituzte.
- Pertsona fisikoak, noizbehinkako ekimenez talde baten ordezkari partikularrak direnak, irabazteko asmorik gabekoak badira eta Udalerrian erroldatuta badaude.

Dirulaguntza arruntaren onuradun izan ahalko dira pertsona fisiko edo juridikoen elkarteak, ondasun elkarteak edo bestelako batasun ekonomiko edo ondare banatuak, nortasun juridikoa izan gabe ere, baldin eta helbide soziala Amorebieta-Etxanon badute eta dirulaguntza emateko arrazoiak ematen duten proiektu edo jarduerak egiteko gai badira.

Eskatzailea Elkarte edo Fundazio izaera duen entitatea bada, Eusko Jaurlaritzako Elkartearen Erregistroan eta Amorebieta-Etxanoko Erakundearen Udal Erregistroan erregistratuta egon beharko da.

HIRUGARRENA: ESKABIDEAK AURKEZTEKO LEKU ETA EPEA, ETA ESKABIDEAREKIN BATERA AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTU ETA INFORMAZIOAK

a) Eskabidea, Kultura eta Euskara zerbitzurako Herri Erakundea, AMETXeko Presidenteari zuzenduta, Zelaieta Zentroko (Zelaieta Parkea z/g) Sarrera-erregistroan aurkeztuko da, edo Herri Administrazioen eta Administrazio Prozedura Erkidearen araubide juridikoari buruzko 30/1992 Legearen 38. artikuluan ezarritako bideetako edozeinetatik. Horretarako **2009ko apirilaren 1etik maiatzaren 15era** bitarteko epea (biak barne) izango da. Eskabidearekin batera dokumentu hauek aurkeztu beharko dira:

- Eskabidea aurkezten duenaren NANaren fotokopia.
- Erakundearen IFKren fotokopia, erakunde juridikoa bada.
- Urtean egin beharreko jardueren proiektu xehatua. Proiektu horrek, gutxienez, jarduera horietako bakoitzaren azalpena bildu beharko du, baita zein bizilagun dituen xede, zein helburu lortu nahi den eta

aurrekontu zenbatetsia zein den ere

- Eskabidea egin aurreko urtean erakunde eskatzaileak egindako jardueri buruzko memoria. Memoria hori 2008an jasotako urteroko dirulaguntzaren justifikazioan jada aurkeztu bazen, horixe azaldu beharko da eskabidean.
- Erakundeak duen bazkide-kopuruari buruzko aitortpena.
- Dirulaguntza eskuratu dezaketen onuradunen kopuruari buruzko aitortpena
- Zerga-betebeharren ordainketa egunean duela egiaztatzen duen agiria, Bizkaiko Foru Ogasunak egindakoa. Zergak Amorebieta-Etxanoko Udalari soilik ordaindu behar dizkioten elkarteek eskabidean erantsiko dute horixe azaltzen duen berariazko aitortpena. Udalak berak ofizioz emango du aipatutako egiaztagiria.
- Eskatzaileak, indarreko legediaren arabera Gizarte Segurantzarekin behartze-harremana badu, Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Orokorrak egindako ziurtagiriaren bidez egiaztatu beharko du Gizarte Segurantzarekiko obligazio guztiak egunean dituela.

b) Aldi berean beste edozein organismo publiko nahiz pribatutan jarduera berbererako dirulaguntzaren eskabidea aurkeztu bada, Zelaieta Zentroko Sarrera Erregistroan aurkezten den eskabideari erantsi beharko zaio hori azaltzen duen adierazpena. Bertan adierazi beharko da zein erakundetari aurkeztu den finantzatzeko eskabidea, zenbat diru eskatu den, edo kasuan kasu, zenbat jaso den.

c) Artikulu honetan zerrendatutako dokumentu eta datuez gain, Erakunde Autonomoak, kasu zehatz bakoitzari jaramon egiteko beste dokumentu osagarri batzuk eskatu ahal izango dizkio eskatzaileari, aurkeztutako proiektua osorik baloratzeko egokitzen jotzen badu.

d) Eskatutako dokumentuak jada Erakunde Autonomoak badauzka, eskatzaileak horiek ez aurkezteko eskubidea erabili ahal izango du, baldin eta aurkeztu zireneko prozedura amaitu zenetik bost urte baino gehiago igaro ez badira. Noiz eta zein organo edo bulegotan aurkeztu edo egin ziren jarri beharko da.

e) Eskabideak Oinarri hauetan ezarritako betekizun guztiak betetzen ez baditu, eskumena duen organoak interesdunari agindeia egingo dio, akatsa zuzen dezan. Horretarako gehienez ere hamar eguneko epe luzaezina izango du, eta honako ohar hau egingo zaio: hori egin ezean, eskaerari uko egin diola ulertuko da, ebazpena eman ondoren, 30/1992 Legearen 71. artikuluan aurreikusita dagoen bezala.

f) Pertsona edo erakunde batek oraindik ere Udalak edo bere Erakunde Autonomoek emandako dirulaguntzei buruzko azalpen-memoria aurkeztu ez badu, edo dirulaguntza horiek dokumentu bidez justifikatu ez baditu, ez da bere eskabidea kontuan hartuko.

g) Eskumena duen organoak dirulaguntzen gehieneko zenbateko osoa hainbanatuko du dirulaguntzen onuradunen artean.

LAUGARRENA: BALORATZEKO IRIZPIDEAK

ESKATZAILEA (gehienez 40 puntu)

- a) Proposamena egiten duen pertsona edo erakundeak Amorebieta-Etxanoko udalerraren giroan garrantzia duen edota errotuta dagoen (gehienez 15 puntu)
- b) Eskatzaileak egiten duen jarduerak urteetan iraun duen (gehienez 15 puntu)
- c) Beste erakundeen finantzazio-bideetara jotzeko eragozpenik duen (gehienez 5 puntu)
- d) Eskatzaileak berak baliabide ekonomikorik duen (gehienez 5 puntu)

Zelaieta Parkea z/g 48340 AMOREBIETA-ETXANO

Tfno: 94 6300650 Faxe: 94 6300651 Mail: zelaieta@ametx.net Web: www.ametx.net

EGITARAUA (gehienez 60 puntu)

- a) Jarduera mota, ondorengo lehentasun hurrenkeraren arabera (gehienez 30 puntu)
 - berezia: tokiko berezitasunak (hizkera, toponimia, ...) landuz egiten dena.
 - teknologia berriak erabiltzen dituen.
 - umeentzako jarduera.
 - gazteentzako jarduera.
 - edonorentzako jarduera.
- b) Jardueraren iraupena eta aldirokotasuna (gehienez 10 puntu).
- c) Proiektua originala eta berritzailea izatea (gehienez 5 puntu)
- d) Jarduera euskara hutsean garatzea (gehienez 5 puntu)
- e) Proiektuak berdintasuna (hizkuntza, arraza, erlijioa edo sexua dela-eta) sustatzea (gehienez 5 puntu)
- f) Ingurumenarekiko eta inguruarekiko errespetua (gehienez 5 puntu)

Proiektu bakoitza dagokion arlo edo sailak osorik baloratuko du. Hark aholkua eskatu ahal izango die egokitzat jotzen dituen pertsona edo erakundeei.

BOSGARRENA: BIDERATU ETA EBAZTEA

a) Oinarri berezi hauetan bildutako laguntzak emateko organo instruktorea Kultura eta Euskararako AMETX Erakunde Autonomoko presidente jn. izango da.

b) Ebazpen proposamena egiteko eskumena duen organoa Dirulaguntzen Emakidako Batzordea izango da. Organo hori osatuko dute kide hauek:

- Burua: Kultura eta Euskararako AMETX Erakunde Autonomoko presidentea.
- 2 batzordekide: saileko teknikaria eta kontu-hartzailea edo berak eskuordetzen duen pertsona
- Idazkaria: saileko laguntzailea edo administraria.

Behin-betiko erabakia AMETX Kultura eta Euskararako Erakunde Autonomoaren presidentek hartuko du.

c) Ebazteko eta jakinarazteko gehieneko epea lau hilabeteko da. Eskariak aurkezteko epea amaitu eta biharamunetik aurrera zenbatzen hasiko da.

Bizkaiko Aldizkari Ofizialean ebazpenaren laburpen bat argitaratuko da. Bertan adieraziko da non dagoen argitaratuta eduki osoa.

Dirulaguntza emateaz batera amaituko da administrazio bidea.

Ebazpena jakinarazi gabe gehieneko epea mugaeguneratzen bada, interesdunek emakidaren eskabidea administrazioaren isiltasunaren bitartez gaitzetsi dela ulertu ahal izango dute

SEIGARRENA: DIRULAGUNTZAREN ZENBATEKOA

Dirulaguntza hauek Erakunde Autonomoaren aurrekontuko 4515 41100 partidatik 70.000 €ko gehieneko kopurua eta 4515 48100 partidatik 42.000 €ko gehieneko kopurua eskuragarri dauden kredituei egotziko zaizkio.

Amorebieta-Etxanon, 2009ko martxoaren 16an
AMETX ERAKUNDE AUTONOMOKO PRESIDENTEA

Sara Chamizo Díez

